

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mikel Larrañaga Mandiola

*Eibar,
Gipuzkoa
(1946)*

Aurkibidea



Biografia



Mikel Larrañaga Mandiola Eibarren jaio zen 1946an. Gurasoak eibartarrak ziren eta okindegi bat zuten Estaziño kalean; hiru anai-arreba dira. Ikasketak Eibarren eta Lekarozen egin zituen eta, ikasketak amaitu ondoren, banketxe batean hasi zen lanean. 1979an, 32 urte zituela, demokrazia sasoiko Eibarko lehenengo alkate izendatu zuten eta 1983. urtera arte egon zen Alkatetzan. Udal-gobernu hartako helburu nagusia kultura demokratiko bat sortzea izan zen.

Ego Ibarra Batzordearen (Eibarko Udala) "60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980" proiektuaren baitan egin da elkarrizketa.

Zintak

EIB-715

- **Proiektua:** 60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2021-07-15
- **Iraupena:** 57 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

EIB-719

- **Proiektua:** 60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2021-10-06
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** None
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

EIB-724

- **Proiektua:** 60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2021-07-15
- **Iraupena:** 49 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Eibar, herri aldarrikatzailea

- **Erref:** EIB-715/004
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:02:11. **Bukatu:** 00:05:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Jarrera politikoak

Laburpena:

<p>Frankismo garaiko gazte garaia gogoratzen du. Etxean beti izan dira abertzaleak eta politikaz hitz egiten zen. Eibarrek zuen sozialista kutsua zela eta, beti ezagutu ditu aldarrikapenak, grebak, mugimenduak... kalean eta lantokietan. Politikoki, ordea, ez zegoen aukera handirik. Behin, Eibarrera Ez Dok Amairu ekarri nahi izan zuten eta Gobernu Zibilean erakutsi behar izan zituzten taldearen letrak, zentsura pasa zezaten.</p>

2. Eibarko Kulturala eta Klub Deportiboa

- **Erref:** EIB-715/005
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:05:21. **Bukatu:** 00:06:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

<p>Taberna-giroan ibiltzen ziren gazteak eta hor mugitzen ziren ideologia ezberdinak, ekintzen antolaketak... Lehenengo haurren Euskal Jaia nola antolatu zuten Kulturaletik. Kulturala eta Klub Deportiboa ziren Eibarren mugimendu-kulturaleko arduradun nagusiak.</p>

3. Eibarko Kulturala: kideak eta ekintzak

- **Erref:** EIB-715/007
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:06:51. **Bukatu:** 00:08:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

<p>Kulturalean biltzen ziren lagunak aipatzen ditu: Amatiño, Julio Sarasua, Jose Mari Pampo, Jose Antonio Garate, Javier Zubiaurre, Arantxa Larrañaga, Maite Narbaiza, Mireia Biteri...Euskaraz irakasteko gau- eskolak antolatu zituzten. Hitzaldiak, kantaldiak, dantza-eskola... Helburua, euskal kultura eta hezkuntza mantentzea eta indartzea zen, askotan ezkutuan eta mozala jantzita.</p>

4. Franco ondorengo alderdi politikoaren legalizazioa

- **Erref:** EIB-715/009
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:10:27. **Bukatu:** 00:12:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Alderdi politiko guztiak debekatuak zeuden Frankoren garaian, eta denak klandestinoak ziren. Alderdiak legalizatu zirenean, bera EAJ-ra afiliatu zen, eta Eibarko alderdi politiko guztiek hilerok biltzen ziren, indarrak batzeko bileretan. Bertan, alderdi zaharrak eta jaioberriak zeuden. Errespetu handiz entzuten zituzten bata eta bestearen ideiak eta ahal zen guztietan, ekintzak (manifestazioak, grebak...) elkarrekin antolatzen zituzten. Guztien helburu nagusia,

5. Franco hil ostean, udal-kudeatzaileak udaletxeetan

- **Erref:** EIB-715/010
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:12:57. **Bukatu:** 00:15:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Franko hil zenean, kongresuko eta senatuko hauteskundeak egin ziren eta hurrengo pausoa herrietan hauteskundeak egitea zen. UCD eta PSOEek, Espainiako herri eta hiri guztietan kudeatzaileak jarri zituzten, gero hauteskundeetan abantaila gehiago izateko

6. Eibarren, udal-kudeatzaileak ez frankismo ostean

- **Erref:** EIB-715/011
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:15:32. **Bukatu:** 00:20:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Franko hil ostean, Gipuzkoan PSOE eta EAJ-ren artean banatu zituzten herrien udal-kudeaketak. Eibarren sozialistak ipini nahi zituzten baina Eibarko EAJ-koak kontra agertu ziren. Garaiko alkate zen Antonio Landak alderdi guztiak deitu zituen eta hor adostu zen, ez zela udal-kudeatzaileak jarriko.</p></p>

7. Alkatetzaren aurrean, beldurra

- **Erref:** EIB-715/014
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:23:16. **Bukatu:** 00:25:46

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Hauteskundeak irabazi eta udaleko kargua hartu arteko denboran, EAJ-ko eta HB-ko zinegotziak 4 aldiz elkartu ziren, erdi izkutuan, etorriko zenaz hitz egiteko. Horrela jakin zuten HB abstenitu egingo zela eta EAJ-k lortuko zuela alkatetza. Mikelek kontatzen du 40 urteko diktadura baten ostean, beldur handia zutela ez zegoelako kultura demokratikorik eta ez zekitelako ondo nola lan egin behar zuten.

8. Zinegotzien arteko tentsio handia baina harreman oso ona zuten

- **Erref:** EIB-715/015
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:25:46. **Bukatu:** 00:27:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>Demokraziako lehenengo legealdia (1979-1983) oso gogorra izan bazen ere, batez ere ETArek ekintzengatik, udalbatzarren ondoren 21 zinegotziak afaltzera joaten ziren (Batzokira, Pecera-ra, Casa del Pueblo-ra, elkarte gastronomikora...). Gaur egun, urtero bazkaltzeko elkartzen dira zinegotzi guztiak.</p>

9. Demokraziako lehenengo legealdietan, liberatu bakarria alkatea zen

- **Erref:** EIB-715/016
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:27:56. **Bukatu:** 00:29:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>Demokraziako lehenengo legealdietan, liberatu bakarria Mikel zen, alkatea. Gainerako zinegotziek, udalean denbora librean lan egiten zuten eta soldatarik izan gabe.</p>

10. 50.000 pezetako soldata alkatearentzat

- **Erref:** EIB-715/018
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:30:00. **Bukatu:** 00:31:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

- **Politika** » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>Ez zeukaten tresnarik udal-gobernantzarako. Alkatea liberatzea onartu zen eta 50.000 pezetako soldata zuen, udal-garbitzaile baten erdia.</p>

11. Eibarko Udaletxea 1979an

- **Erref:** EIB-715/019
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:31:38. **Bukatu:** 00:33:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Politika** » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>Lehenengo demokrasiako legealdia hasi zenean, Eibarko Udaletxea nolakoa zen kontatzen du Mikelek. Alkatetzan biltzen ziren zinegotziak eguerditan lanerako.</p>

12. Jendea zuzenean alkatearengana joaten zen

- **Erref:** EIB-715/020
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:33:20. **Bukatu:** 00:35:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- **Politika** » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>1979an, alkatetzaren atea nork zaintzen zuen. Herritar asko alkatearengana joaten ziren edozein auzi konpontzeko.</p>

13. Demokrazioako lehenengo legealdian, udala gastuak ordaindu ezinik

- **Erref:** EIB-715/021
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:35:09. **Bukatu:** 00:37:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- **Politika** » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

1981ean, Carmen Celedón hasi zen gizarte laguntzaile bezala Eibarko Udalean. Udaletxean oso diru gutxi zegoen baina zorrak zituzten farmazeutikoarekin, Iberduerorekin...

14. Helburu nagusia, kultura demokratiko bat sortzea

- **Erref:** EIB-715/022

- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:37:21. **Bukatu:** 00:39:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>Kontzertu ekonomikoarekin, 1981ean, udaleko arazo ekonomikoak amaitu ziren eta gastuak ordaintzeko ez zuten gehiago arazorik izan. Orduan, udal proiektu batzuk diseinatzen, adosten eta martxan jartzen hasi ziren, hurrengo legealdietan gauzatuko zirenak. Udalean zegoen langileria ere asko berriztu zuten.</p>

15. Udal idazkariaren figura

- **Erref:** EIB-715/023
- **Iraupena:** 0:04:27. **Hasi:** 00:39:49. **Bukatu:** 00:44:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Lehenengo legealdiko udal-idazkari nagusiak alkateak baino gehiago agintzen zuen. Ofizios abokatuak izaten ziren. Alkateari Mikel eta idazkariari "Don César". Idazkariaren lana. Tentsioak. Ondoren Arantxa Etxaniz jarri zen idazkari moduan eta lana asko erraztu zitzaien Udalean.

16. Alkatearen figura, oso gertukoa

- **Erref:** EIB-715/024
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:44:16. **Bukatu:** 00:45:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Mikelek uste du, alkatearen figura naturaltasun eta gertutasun osoz ikusten zela. Bi istorio kontatzen ditu, udaletxe ondoan dagoen erreserbatutako aparkalekuaren kontura.

17. Ur gabezia Eibarren eta Aixolako presa

- **Erref:** EIB-715/025
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:45:48. **Bukatu:** 00:48:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Udalera heldu zirenean 1979. hainbat premia zeuden herrian. Gauetan bakarrik erabil zitekeen ura. Oraindik inbestidura-ekitaldia egin gabe zegoenean, Gipuzkoako Foru Aldundira joan ziren presa bat eskatzeko eta 1991 inguruan zabaldu zen.</p>

18. ETAko erasoen aurrean, udalbatzarrak bertan behera

- **Erref:** EIB-715/026
- **Iraupena:** 0:04:42. **Hasi:** 00:48:32. **Bukatu:** 00:53:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

<p>ETAk egin zituen ekintzak Udalean oihartzun handiak izaten zituzten eta momentu gogorak pasa zituzten. Alderdien artean tentsioak sortzen ziren udalbatzarretan. Lau udalbatzar bertan behera utzi ziren ETAREN ekintzen ondorioz.</p>

19. Guardia zibila laguntza eskeintzen baina alkateak ezetz

- **Erref:** EIB-715/027
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:53:14. **Bukatu:** 00:55:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

ETAren erasoen ostean, jendetza biltzen zen udaletxean eta plazan. Eibarko guardia zibilen kuarteleko kapitainak, Mikeli segurtasun berezi bat eskaini zion baina honek ezetz erantzun zion.

20. Udalean, garrantzitsuena errespetua

- **Erref:** EIB-715/028
- **Iraupena:** 0:50:16. **Hasi:** 00:55:44. **Bukatu:** 01:46:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

Mikelek azpimarratu nahi du, Udalean ETAREN kontura zinegotzien artean liskar eta momentu latzak egon arren, gaur egun duten harreman ona. Errespetuz dena lortu daitekeela uste du Mikelek.

21. Zenbat irabazi beharko luke alkate batek?

- **Erref:** EIB-719/003

- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:03:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Iritziak

Laburpena:

Alkate batek, udaletxe batean soldata altuena duenak baino euro bat gehiago irabazi beharko luke. 1979an alkatea izan zen Mikel eta 50.000 pezetako soldata zuen. Kale-garbitzaileek 110.000 pezeta irabazten zituzten. Alkateak, inork baino ordu gehiago sartzen zituen.

22. Politika oxigenatu egin behar da

- **Erref:** EIB-719/004
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:03:27. **Bukatu:** 00:05:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak

Laburpena:

Frankismo osteko politiko demokratikoen helburua, ez zen aberastea izaten. Karlos Garaikoetxearen lehenengo aholkulariek (Mario Fernandez, Pedro Miguel Etxenike, Javier Lasagabaster, Carlos Blasco Imaz...) haien enpresetan baino gutxiago irabazte zuten Eusko Jaurlaritzan. Garai hartan, politikan sartu zirenak idealista batzuk ziren eta ez zuten izaten aberasteko nahia. Gaur egun, egoera guztiz ezberdina da eta politika oxigenatu egin behar dela uste du Mikelek.

23. Lehenengo udal demokratikoak mehatxuak jasotzen zituen

- **Erref:** EIB-719/006
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:05:35. **Bukatu:** 00:08:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>Frankismo osteko Eibarko lehenengo alkate demokratiko bezala, eskutitez hainbat mehatxu jaso zituen. Beste alderdi batzuetako zinegotziak ere jasotzen zituzten.</p>

24. Bailara berdineko alkateen ikuspuntu ezberdinak

- **Erref:** EIB-719/007
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:08:05. **Bukatu:** 00:11:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

Debarreneko mankomunitateko alkate liberatu bakarrak, Mikel eta Julian San Cristobal (Ermuko alkatea) ziren. Julianek esan zion, Eibarren auzoetan gastatzen zen diru hori ez zelan politikoki errentagarria, eta erdialdean inbertitu behar zuela. Bakoitzak bere ikuspuntua zuen.

25. Franko hil osteko alkateak

- **Erref:** EIB-719/009
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:12:21. **Bukatu:** 00:12:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Franko hil ostean eta lehenengo hauteskundeak izan bitartean, Eibarren egon ziren alkateak: Antxon Iraolagoitia, Juanito Egia eta Antonio Landa izan ziren.

26. Franko osteko UCD eta PSOEn udal-kudeatzaileak

- **Erref:** EIB-719/011
- **Iraupena:** 0:07:34. **Hasi:** 00:13:10. **Bukatu:** 00:20:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Politika » Hauteskundeak

Laburpena:

Frankismo osteko eta lehenengo hauteskundearen arteko epealdia kontaktzen du Mikelek. UCDk eta PSOEk, Espainiako alkatetza guztietan kudeatzaileak ipini zituzten bi alderdiek. Eibarren, arazoak egon ziren kudeatzailearen proposamenarekin eta EAJ-koek gogor egin zuten horren kontra. Azkenean, hauteskundeetan EAJ-k irabazi zuen eta Mikel alkate bihurtu zen. Prozesuaren gorabeherak nolakoak izan ziren kontaktzen du Mikelek.

27. 1931 eta 1979ko hauteskundearen ezberdintasuna Eibarren

- **Erref:** EIB-719/013
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:20:57. **Bukatu:** 00:23:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Hauteskundeak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Benigno Baskaran, sozialista famatua izan zen. 1979ko hauteskunde demokratikoen aurretik, bakarra egon zen 1931an. Orduan, Eibarren EAJ-k

zinegotzi bakarra atera zuen, baina 1979an irabazi egin zuten. Harritzekoa izan zen, 1979an Eibarren kanpotik etorritako jende asko zegoelako eta normalean hauen botoak Espainiako alderdietara joaten direlako. Hauteskundeak irabaztean, Benigno Baskaran eta Ramon Egaña hurbildu zitzaizkion errespetu handiarekin.

28. Drogak Eibarren: gertaera dramatikoak

- **Erref:** EIB-719/014
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:23:25. **Bukatu:** 00:26:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

80. hamarkadan izandako drogaren arazoa gertutik bizi izan zuen Mikelek, hasiera batean Udalean ez zegoelako gizarte-langilerik. Jende guztiak alkatearengana jotzen zuen. Behin, emakume batek deitu zion drogan sartuta zegoen suhia atean zuela etxean sartu nahian. Familiari nola laguntzen saiatu zen kontatzen du Mikelek.

29. 1981eko droga bigunen kontsumoaren legalizazioa Eibarren

- **Erref:** EIB-719/015
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:26:02. **Bukatu:** 00:28:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>Drogen garaia oso gogorra izan zen. Javi Teruel, PCE-ko zinegotzia, arazo honetan oso sartuta egon zen eta bere laguntza oso handia izan zen. Udalak ez zuen tresnarik drogei arazoari aurre egiteko eta drogazale asko Arrasateko ospitalera eramaten zituzten. 1981ean, Eibarko Udalak droga bigunen kontsumoa legalizatu zuen mozio baten bitartez. Legalki balio ez bazuen arren, gaiaren aurrean Udalak bere jarrera zein zen erakutsi nahi izan zuen.</p>

30. Frankismo osteko udala, zorrez bebetea

- **Erref:** EIB-719/016
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:28:44. **Bukatu:** 00:30:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>Frankismo osteko lehenengo udal demokratikoan ez zegoen lan-kulturarik. Drogak, industriako krisialdia, dirurik ez, zorrak ezin kobratu... Ez zeukaten dirurik, ezta udaletxea kudeatzeko ideiarik ere ez.</p>

31. Krisialdian, enpresariei euskarri emozionala

- **Erref:** EIB-719/017
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:30:27. **Bukatu:** 00:32:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Krisi industrialia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

80. hamarkadako krisialdian, udalak ezin zien enpresariei zuzenean lagundu. Euskarri emozional eta bitartekari moduan bakarrik jokatzeko zuten. Gisasola enpresako nagusiak eta Santander Banketxeko bi buru batu zituen Mikelek udaletxean eta tentsio handiko momentuak bizi izan zituzten. Horrelako egoera gehiago bizi izan zituzten ere.

32. Tejeroren estatu-kolpearen bizipena Eibarko udaletxean

- **Erref:** EIB-719/022
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:35:53. **Bukatu:** 00:37:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>1981eko otsailaren 23an Tejerok egin zuen estatu-kolpea Eibarko udaletxean nola bizi zen kontatzen du. Ramon Egaña transistore batekin hurbildu zen udaletxera. Javi Baglietto zinegotziak, kalera atera nahi zuen Tejeroren kontra zegoela adierazteko. Besteek ezetz esaten zieten, bakoitzak bere aldetik alde egin behar zuela.</p>

33. Tejerazoaren inguruko anekdotak Eibarren

- **Erref:** EIB-719/023
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:37:20. **Bukatu:** 00:39:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>Tejeroren estatu-kolpe saiakeraren ostean, Mikel Eibarko guardia zibilen kuartelera joan zen bertako egoera zein zen ikustera. Kantinara eraman zuten eta han zeuden polizia guztiak telebistari adi-adi.</p>

34. AEK-ren sorrera Eibarren

- **Erref:** EIB-719/025

- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:39:58. **Bukatu:** 00:42:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

<p>Ikastolaren sorrera, Mikel alkatetzara heldu aurretik hasi zen. Euskaltegia sortu zenean, udalean erabaki behar izan zuten ia HABE-k edo AEK hartuko zuen kudeaketa. Udalbatzarrean, AEK-ren aldeko bozkak irabazi zuen eta hurrengo egunean bertakoekin joan zen Gipuzkoako Aldundira, euskaltegiaren irekiera formalizatzeko.</p>

35. EAJ-ren apurketaren ondorioak

- **Erref:** EIB-719/027
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:44:07. **Bukatu:** 00:47:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

EAJ-ren apurketaren ondorioz, hauteskundeak galdu zituztela uste du Mikelek. EAJ-ren apurketak liskar asko sortu zituen familietan, lagunartean... Mikel Eusko Alkartasunara (EA) pasatu zen eta Eusko Jaurlaritzan egon zen, Lurralde Antolamenduko Sailean.

36. Emakumeen papera lehenengo udal demokratikoan

- **Erref:** EIB-719/030
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:50:50. **Bukatu:** 00:52:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan

Laburpena:

<p>Alkate izan zen garaian, ez zegoen emakumearekiko sentsibilizaziorik. Carmen Lecea eta Maria Elena Piedra ziren emakume zinegotzi bakarrak. Carmen Celedon, gizarte-langilea heldu zen geroago eta berdintasunaren alde lan egin zuen.</p>

37. Eibarko lehenengo talde-feminista

- **Erref:** EIB-719/031
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:52:25. **Bukatu:** 00:54:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Eibarren, emakumeen kolektibo indartsu bat zegoen, Arrate Berasaluce buru

zela. Kolektibo honen eskutik, emakumearen presentzia handitu zen bai herri-mugimenduetan eta baita udal barruan ere. Oso langileak ziren eta gauza asko egin zituzten.

38. Udalbatzarretan, lehenengo hitza beti herritarrek

- **Erref:** EIB-719/032
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:54:39. **Bukatu:** 00:58:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

<p>Beste herri batzuetan ez bezala, Eibarko udalbatzarretan zinegotziek bozkatu aurretik, herritarrei eta udal-gobernutik kanpo gelditu ziren alderdi politikoei hitza ematen zitzairen. HB-ko jende asko joaten zen udalbatzarretara, jendea mobilizatzeko gaitasun handia zutelako.</p>

39. 80ko krisi industrialia Eibarren

- **Erref:** EIB-724/001
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Krisi industrialia

Laburpena:

1979-1983 legealdian, krisi ekonomikoak gogor jo zuen Eibarren. Enpresariak hurbiltzen ziren udaletxera, baina beraiek ez zuten eskumenik.

40. Militar frankisten aurrean euskaraz hitz egiten

- **Erref:** EIB-724/002
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:01:36. **Bukatu:** 00:04:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Krisi industrialia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Behin industria-azoka batean, Aranburu Topete eta Alcalá Galindo militarrekin gertatutakoa kontatzen du. Enpresariei, azoketara laguntzen zieten bertara. Hori, eta laguntza morala ematea zen Udalak zezakeen bakarra industriari laguntzeko.

41. Udala, frankismo osteko aldaketak gauzatzeko tresna izan nahi zuen

- **Erref:** EIB-724/003
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:04:01. **Bukatu:** 00:06:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Berrogei urteko diktadura baten ondoren, udaletxe berri bat, ikurrina erabiltzea, euskaraz hitz egitea... lorpen haundi bat izan zen denentzat. Kirola, txapelketak... jendeak gogo asko zeukan dena egiteko eta Udalak hoiek gauzatzeko tresnak eman nahi zituen.

42. Jose Luis Perez Sarasketa, jai eta kultura zinegotzia

- **Erref:** EIB-724/004
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:06:08. **Bukatu:** 00:07:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

Hasieran, Mikel joaten zen sari-banaketa eta irekiera-ekitaldi guztietara. Baina gehiegi zen eta lana banatu zuten. Kultura eta Jaien zinegotzia, Jose Luis Perez Sarasketa zen.

43. Kultur-eztanda Francoren diktadura eta gero

- **Erref:** EIB-724/005
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:07:03. **Bukatu:** 00:08:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Aisia

Laburpena:

Franco hiltzean, kultura mailan eztanda bat egon zen musikan, kulturean, kirolan...

44. Drogak Eibarren 80. hamarkadan

- **Erref:** EIB-724/006
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:08:42. **Bukatu:** 00:11:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Eibarren drogen arazoa oso larria izan zen. Alkatetzan, droga beharrak jota egoten ziren gazteak izan zituen behin baino gehiagotan. Istorio bat kontatzen du. Denak alkatearengana jotzen zuten. Kontzertu ekonomikoaren ostean hartu zuten lehenengo erabakietako bat, gizarte langile bat kontratatzea izan zen.

45. Indarkeria poliziala

- **Erref:** EIB-724/007
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:11:32. **Bukatu:** 00:14:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Alkate bezala, egun osoan arazoak konpontzen pasatzen zuen. Poliziaren partetik indarkeria asko zegoela kontatzen du.

46. ETAr buruz: "mina, mina da" denetan

- **Erref:** EIB-724/008
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:14:12. **Bukatu:** 00:17:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

ETAko kide batek lehegailu bat manipulatzeko hil zen eta Mikelek kontatzen du nola joan zen haren etxera, bere ama ikustera. Bi aldeekin egon da Mikel: "mina, mina da".

47. Udaletxeko kudeaketa. 1979-1983

- **Erref:** EIB-724/009
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:17:30. **Bukatu:** 00:19:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

<p>Udaletxeko kudeaketa nola eraman zuen Eibarko lehen udal gobernu demokratikoak, 1979tik 1983ra.</p>

48. Debarrenako ospitalearen kokapenaren afera I

- **Erref:** EIB-724/011
- **Iraupena:** 0:05:41. **Hasi:** 00:19:50. **Bukatu:** 00:25:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

<p>Mendaroko ospitaleari buruz: Eibarren edo Mendaron? Mikeli leporatu zioten Eibarren ospitalea ez egitea eta hau Mendarora eramatea. Eibarren egiteko zailtasun tekniko handiak zeuden.</p>

49. Debarrenako ospitalearen kokapenaren afera II

- **Erref:** EIB-724/012
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:25:31. **Bukatu:** 00:28:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:

<p>Mendaroko ospitalea, Eibarren eraikiko ez zela jakitean, udal gobernua eta berak pertsonalki jasan izan dituen erasoak kontaktzen ditu.</p>

50. Eibarko Euskararen Bandoa

- **Erref:** EIB-724/013
- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 00:28:10. **Bukatu:** 00:32:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

<p>Eibarko Euskararen Bandoa nola sortu kontaktzen du: diseinua, kartelak, difusioa... Ez zen denen gustokua izan (kartel batzuk apurtu zituzten).</p>

51. Eibarko Euskararen Bandoa, Udalaren izenean

- **Erref:** EIB-724/014
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:32:28. **Bukatu:** 00:34:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

<p>Euskararen Bandoa Korrikan ere erabili zen. Mikelek zeukan bandoaren jabetza intelektuala, orduan alkatea zelako. Udalaren izenera aldatu zuen.</p>

52. ...eta Kitto!-ren sorrera; aldizkariaren izena

- **Erref:** EIB-724/015
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:34:10. **Bukatu:** 00:35:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

...eta Kitto!-ren sorrerari buruz hitz egiten du. Aldizkariaren izena, Eibarko Euskararen Bandoarekin lotuta dago.

53. Hauteskundetarako zerrendaburu bila

- **Erref:** EIB-724/017
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:35:36. **Bukatu:** 00:38:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Hauteskundeak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Trantsizio hitzak, udaletxea ekartzen dio gogora. Lehenengo hauteskunde demokratikoak prestatzen ibili zirenean, Mikelek ez zuen planteatzen bere burua zerrendaburu bezala aurkeztea. Zerrenda osatzen nola ibili ziren kontatzen du eta zerrenda politiko baten sartzeak dakarren ondorioa.

54. Bazkal aurretik berorika eta ostean hika

- **Erref:** EIB-724/020
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:40:40. **Bukatu:** 00:42:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>San Isidro eguna lehenengoz antolatu zuten frankismo ostean. Jose Luis Urzuriaga "Sumendixa" izan zen antolatzaile nagusia. Garai hartan alkatearen figura nola ikusten zen azaltzen duen anekdota bat kontatzen du.</p>

55. Aberasgarriena, norberaren herriko alkatea izatea da

- **Erref:** EIB-724/022
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:43:19. **Bukatu:** 00:44:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Politikan urte askoz ibili den arren, aberasgarriena norberaren herriko alkatea izatea izan da.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com